

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

47/2020 Mozioa, uztailaren 13koa, Arabako Foru Aldundiak adingabeak babesteari buruz

Arabako Batzar Nagusi hauetako Gizarte Ongizatearen VII. Batzordeak, 2020ko uztailaren 13an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

47/2020 Mozioa, uztailaren 13koa, Arabako Foru Aldundiak adingabeak babesteari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Adingabearen eta Familiaren Arloko profesionalen lana indartzeko; horretarako, besteak beste, Adingabearen eta Familiaren Arloaren mende dauden langileei etengabeko prestakuntza eskainiko zaie haurren kontrako sexu abusuei eta indarkeria matxistari buruz.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Adingabearen eta Familiaren Arloak BALORA tresna erabiliz hauteman dituen babesgabetasun-egoerak aztertzeke, datozen sei hilabeteetan, bai eta "instrumentalizazioa gurasoen arteko gatazketan" izeneko itemak izan zezakeen eragina berrikusteko ere, gero informazio hori Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Batzar Nagusiei bidaltzeko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote azaroaren 8ko 230/2011 dekretua, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena, berrikus dezala.

4. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote azterketa hori egiteko kon-tuan har ditzala Arabako Foru Aldundiak helarazitako azterketa eta informazioa (2. puntuan adierazitakoarekin bat), baita gainerako foru-aldundiek eta udalerriek bidalitakoa eta Eusko Legebiltzarrean egin den eta Legebiltzar berria eratu ondoren berriz ere lanean hasiko den batzorde txostengilearen ekarpenak ere, arreta berezia eskainiz babesgabetasun-egoerak aztertzeke erabiltzen den "instrumentalizazioa gurasoen arteko gatazketan" izeneko itemaren eraginean. Halaber, eskatzen diote Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak artikulatuta dituen or-gano eta kontseiluetan prozesua bideratzeko, besteak beste eta bereziki Haur eta Nerabeen Behatokiarekin (3/2005 Legearen emaitza) eta Gizarte zerbitzuen erakunde arteko organoarekin (12/2008 Legeak sorrarazi zuen) elkarlanean.

5. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote Emakunderekin eta arlo horre-tan adituak diren eragileekin elkarlanean jardun dezala, gorago aipatu diren lanen osagarri gisa hausnarketa-prozesu bat gauzatzeko; prozesu horren erdigunea egun haurren kontrako sexu abusuen arloan eskaintzen den erantzun-sistema izango da. Horrez gain, eskatzen diote Save the Children erakundearen laguntzarekin Katalunian ezarri den Barnahus eredua ere aztertzeke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 13a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA